

ARAMA ZAITEZ



1.zenbakia

2014ko otsaila

ARAMAKO BERRIEN BOLETINA

Aurkezpena

Aramako udalak, herritarrengana gerturatzeko helburuarekin, aldizkako maiztasuna izango duen boletin bat helarazi nahi du etxeetara.

Honekin, udala lanean ari den gaien inguruko informazioa zabaldu, eta, aldi berean, momentuan interesekoak izan daitezken kontuak argitaratu nahi ditugu. Gainera, beti ere zabalik utziko ditugu atari honetako ateak, herritarrek ere beraien ekarpenak egin ditzaten.

Era xume batean sortu nahi dugu bide berri hau, gastu handiegitan sartu gabe. Berriak eta gaiak era xume batez jorratuak izango dira, ez dira kazetaritzako lan mamitsuak izango. Mami, lan eremuez informatzean datza.

Aldizkako boletina izango da, bi hilean behin saiatuko garelarik etxeetara helarazten. Bali-teke aldiren batean kale egitea, baina, uste dugu herritarrek ulertuko dutela.

Bestetik aldizkaria hasieran paperezko bertsioan jasoko baduzue ere, honekin batera formatu digitala ere eskura izango duzue, zuen helbidea guri helarazi eta e-mail bidez bidaliko dizugu. Gure helbidea honakoa da aramaudala@gmail.com

Espero dugu jendearen gustukoa suertatzea, eta, informazio hau herritarrengana heltzea.

BURUTURIKO LANAK

Azken boladan, buru-belarri jardun gara hainbat proiektutako lanak burutzen, eta, eguraldi txarraren eraginez, uste baino gehiago ari dira luzatzen hauetako batzuk. Hala nola:

- 2013an izandako euriteen ondorioz sorturiko luiziak konpondu dira, xxxx aurrekontua izan dutelarik. Tartean, Aiestazuri azpiko luizia konpondu berri da, xxxx aurrekontuarekin.
- Aiesta-aldeko ur zikinen kanalizazioa egin da, xxxx aurrekontuarekin.
- Arizmendi eta Iturrioz etxeetako ur zikinen saneamendu lanak egin dira.
- XVII mendeko monumentu historiko moduan katalogaturik dagoen Ibares zubiaren birgaitze lanekin darraigu, epe laburrean bukatzea espero dugularik. Birgaitze lan hauek xxxx aurrekontua izan dute.
- Ibares-aldeko ur zikinen saneamendu sarea sortzen ari gara, bertako ur zikinak kolektorera bideratuko direlarik.

AGENDA

Martxoak 8, Emakume Langileen Nazioarteko Eguna, sagardotegira irteera.

Martxoak 11, agenda 21 bilera, Iriarte aretoan

Martxoak 20, GAP ikastaroaren hasiera

Beste hainbat gauza

ETXEKO HONDAKIN BILKETA



Garai berrietara egokitzen ari gara. 2014. urtean, berreskurabili eta birziklatzeko kontzeptua izatea nahitaezkoa zaigu, ezinezkoa da orain hamarkada batzuk moduan jarraitu, kontaminazioa geratu beharrean gaude, nahitaez.

Eta kontu honetan, Aramako herriak lezioa eman dio gizarteari. Aramako herriak, onartu ditu obligazioak, eta, hauei aurre egiteko,

hondakinen bilketa ereduan urrats handi bat aurrera egitea erabaki du.

Urrian egin zen Herri Batzarrean, bertan 36 etxebizitza ordezkatuak izan zirelarik, onartu zen egun martxan dugun bilketa sistema berria ezartzea.

Gaur egun, kasu puntualen bat edo beste salbu, eta, biltzailea ere egokitze prozesuan dagoela onartu dezakegularik, baina, orokorrean, oso txukun

ari gara beharrak betetzen. Birziklapen emaitzei begiratzaren badiegu, Sasietaren datuen arabera, %89 ko birziklapen tasa bat izan da Araman azken hilabetean.

Herritarren jarrera txalotu, eta horrela jarraitzeko hauspotu nahi zaituztegu. Ekologiak eskertuko digu, eta baita ekonomiak ere.

“Aramako emakume talde batek, Ikaztegiako BEGIRISTAIN sagardotegian bazkaria antolatu du”

MARTXOAREN 8ko EKINTZAK

Araman ere, gainerako herrietan bezala, Emakume Langilearen Eguna ospatuko da Martxoaren 8an. Horrela, eta eguna elkarrekin ospatzeko, Aramako emakume talde batek, Ikaztegiako BEGIRISTAIN sagardotegian bazkaria antolatu du, eta bertarako gonbidapena luzatu nahi dizugu emakume orori. Joan nahi duenak, izena Toki Alai tabernan eman behar du, Martxoak 1a baino lehen.

HIRIGINTZA ARAUEN BERRIKUSPENA



Urtarrilaren 25an egin zen Aramako Hirigintza Arauen Berrikuspenarako onarpeneren aurkezpena. Bertan, 25 herritar inguruk entzuna ahal izan zuten arauak ekarriko duten aldaketa nagusi-

enen berri. Orain alegazio prozesua martxan dago, eta, Martxoaren 7a bitartean egongo da aukera alegazioak aurkezteko. Aldi berean, arau hauek sakontasunez ikusi nahi izan ez gero, udalean izango du-


zue horretarako aukera, astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan, 11:30-14:00 edota sartu www.aramaudala.net

[aramaudala.net](http://www.aramaudala.net)

atarian, eta bertan izango duzue araudi osoa.

2014. URTEKO AURREKONTUAK

	<u>2014 AURREKONTUA</u>	<u>2013 AURREKONTUA</u>	<u>2013 BILAKAERA</u>
<u>PERTSONALA</u>	145.190,00 €	139.190,00 €	125.113,29 €
<u>MANTENUA</u>	20.300,00 €	15.600,00 €	16.519,31 €
<u>HORNIDURAK</u>	70.070,00 €	67.420,00 €	56.423,20 €
<u>AZPIKONTRATAK</u>	19.000,00 €	25.262,00 €	25.524,92 €
<u>ELKARTEAK</u>	14.396,00 €	18.046,00 €	9.999,49 €
<u>LAGUNTZAK</u>	8.100,00 €	12.000,00 €	14.449,11 €
<u>OBRAK</u>	150.227,00 €	40.500,00 €	337.630,64 €
<u>KULTURA</u>	29.500,00 €	21.500,00 €	27.978,31 €
<u>FINANTZA</u>	200,00 €	15.100,00 €	14.635,12 €
<u>BESTELAKOAK</u>	30.235,00 €	25.000,00 €	18.448,56 €
SARRERAK GUZTIRA	487.218,00 €	379.618,00 €	646.721,95 €



OTSAILAK 28, HERRI BATZARRA

Otsailaren 28an, ostirala, arratsaldeko 19:00tan, Herri Batzarra burutuko da Iriarte Aretoan. Bertan, 2014. urteko aurrekontuak azalduko dira, eta, 2013 urtean izandako bilakaera ekonomikoaren berri emango da. Goian dituzuen tauletan agertzen den informazioaren inguruko azalpen argiak ematen saiatuko gara bertan.

Aldi berean, Agenda21 parte-hartze prozesuak eman dituen emaitzak ere azalera ziko dira.

2014		MARTXOA						
ASTELEHEIA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDA		
3	4	5	6	7	8	9	2	
10	11	12	13	14	15	16		
17	18	19	20	21	22	23		
24	25	26	27	28	29	30		

EREN
 Bobespean / Negufegia
 berenjena, tomatea, pip
 Aire librean: Patata, por
 gorró, azenorrio, perre

LANDATU
 Bobespean / Negufegia
 Tipulina, tomatea
 Aire librean: Tipulina, t
 letxuga, azelga, apioa, h

ATSEDEMA
 Egun, eguziak, lau
 Kabanak, kabanak, kabanak
 Sustrak, sustrak, sustrak
 Laxak, laxak, laxak, laxak
 Osoak, osoak, osoak, osoak
 ATSEDEMA

Beste lanok:

2014													
ASTELEHENA		ASTEARTEA		ASTEAZKENA		OSTEGUNA		OSTIRALA		LARJUBATA		IGANDA	
7	8	1	2	3	4	5	6	13	12	11	10	9	19
14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27
28	29	30											

EREN
 Babespean / Negufegia
 balina, meloia, sandia, ke-
 bultutan eta albutulu-
 Aire librean: Patata, po-
 gornia, aznarinoa, perre-
 apioa, nukula, rabarritoa.

LANDATU
 Babespean / Negufegia
 bererijeno, kalabazina, f-
 Aire librean: Tipulina, f-
 letxuga, azelgo, apioa, r-

ALZETZEA
 Erubuz, berrota, kalabazina, f-
 Sustrak, aznarinoa, perre-
 Letxuga, azelgo, apioa, r-
 Oskala, berrota, kalabazina, f-

Beste lanak:

AGENDA 21 BERRIA



Sarrera

Azken hilabetetotan Araman Agenda 21 plangintza berritzen aritu gara. Asmoa, datozen 8-10 urteetan herrian aurrera eraman beharreko ekintzak zehaztea izan da.

Herri Plan berri hau garatzeko, aurreko kasuetan egin den moduan, herritarren parte-hartzea ezinbestekoa izan da: guztion artean, aztertu, eztabaidatu eta adostu dugu plana.

Prozesua

Pasa den urteko ekainean hasi ginen lanean, prozesuaren urrats ezberdinak, landu beharreko gaiak, egin beharreko komunikazio lanak etab. zehaztuz.

Urrira bitarte herriko gizarte, ekonomia eta ingurumen diagnostikoa osatu genuen. Diagnostiko honek, adierazle eta datu objetiboak biltzeaz gain, herritar ezberdinen iritzia ere jasotzen ditu (11 herritar elkarrizketatu ziren).

Behin herriaren egoera zein den aztertuta, datozen urteetarako ekintzak proposatu eta priorizatzeari ekin genion. Honetarako hiru lan-talde osatu dira: Herri Bizitza eta Ongizatea, Hirigintza eta Ingurumena eta Baserritarren taldea. Talde bakoitzak bere dinamika propioa izan badu ere, Agenda 21eko Ekintza-Planean jasota geratu diren ekintzak talde hauetan proposatu eta landu dira. Guztira 26 lagunek parte-hartu dute lan-taldetan.

Ekintzak

Lehen esan bezela, emankorrek izan dira hiru lan-talde hauek: guztira 70 ekintza proposatu dira. Ekintza hauekin gai ezberdinak landu dira: 3. Adina, Gazteak, Kultura, Kirola, euskara, Ura, Energia, Hondakinak, Landa Eremua, etab.

Ekintza guztiak, herritarren bizi-kalitatea hobetzearekin zerikusia dute eta Arama biziago, txukunago, justuago bat lortzeko balioko dutelakoan gaude. Hona hemen, priorizatu diren zenbait ekintza:

“Ekintza guztiak, herritarren bizi-kalitatea hobetzearekin zerikusia dute eta Arama biziago, txukunago, justuago bat lortzeko balioko dutelakoan gaude.”

- 3. Adinekoentzako ikastaro eta hitzaldiak antolatzea.
- Udalaren azken solairuan adin guztietara egokitutako gimnasio bat egitea.
- Euskararekin lotutako ekintzak egiten jarraitzea (euskararen eguna, korrika, etab.).
- 2013an egin den moduan, festetan herritarren inplikazioa eskatu eta ahalbidetzea.
- Behar ezberdinetara egokitutako liburutegi zerbitzua antolatu eta bultzatzea.
- Internet azkarra izateko aukera ezberdinak aztertzea.
- Apaiz etxearen erabilera zehaztu eta jarraipena egitea.
- Eguneko zentru bat planteatzea.
- Haur-eskola bat planteatzea.
- Udal zein herriko lantegietan herritarren kontratazioa bultzatzea.
- Etxebizitzak eraiki bitartean alokairuak bultzatzea, gazteak joan ez daitezen.
- Bertako gazteentzako etxebizitzak eraikitzea.
- Gazteak herriko proiektu eta ekintzetan dinamizatzaile modura parte-hartu dezaten animatzea.
- Baserri batetik bizileku bat baino gehiago ateratzeko aukera ematea.
- Jendeak ondo aparkatu dezan neurriak hartzea; abisuak, idatziak, etab.
- Gure kabiko bidegurutzea hobetzeko presio soziala egitea: sinadura bilketa, etab.
- Gas naturala herrian sartzeko egin beharrekoaren informazioa zabalzea.
- Landa eremua txukun mantentzeko auzolana edo %an-trukea+sustatzea.
- Kimaketa hondarrak edo belarrak botatzeko eremuren bat ahalbidetzea,
- Ur zikinen kanalizazioarekin jarraitzea.
- Duru poltsa bat sortu terrenoen garbiketaren arira.
- Baso pisten erabilpenerako araudia osatu eta betearaztea.

2004. urtean, Arama Agenda 21 proiektuan murgildu zen, eskualdeko gainerako udalerriekin batera. Prozesu horretan Udalak aurrera eraman beharreko hainbat ekintza zehaztu ziren. 2008an, plangintza hori eguneratu beharra sumatu zen, Udalak behar berriak zituela ikusita. Honela, hainbat Herri Batzar eta Sektorekako bileren ondorioz, herritarren parte-hartzearekin batera Agenda 21a eguneratu zen. Hau da, guztion artean, aztertu, eztabaidatu eta adostu genuen plana izan zen Agenda 21aren eguneraketa. Plan honetan zehazten ziren ekintzak burutzen joan gara azken urteotan eta 2013an Herri Plan berri baten beharra atzeman dugu. Herri Plan berri hau garatzeko, aurreko kasuetan egin den moduan, herritarren parte-hartzea ezinbestekoa dela iruditzen zaigu eta horregatik, berriz ere Agenda 21ak ezartzen duen metodologiarekin bideratzea adostu dugu. Metodologia honek, herritarren parte-hartzeaz osatutako Herri Plan bat gauzatzeaz gain, parte-hartze kultura sustatu, herri kohesio eta identitatea indartzea ahalbidetzen duelako. Era berean, behin Plana esku artean izanda bere jarraipen eta ebaluaketarako dauden tresnak erabiliz, Herri Plan erabilgarri, praktikoa eta ebaluagarria bat izateko aukera dago.

ERREZETA

Anne Otegi, Aramako Toki Alai
jatetxea



KUIA PURE BIZIA

Osagaiak:

- **KUIA** zati handi bat (500g r)
- **TIPULA** handi bat
- **BARATXURIA** 3 ale
- **OLIBA** olio
- **GATZA**
- **KAIENA** piperra
- **URA** edo **SALDA** 200ml
- **ESNEGAINA** aukeran


• **PRESTAKETA:**

- **Zatitu zati txikietan, tipula eta baratzuria.**
- **Jarri erregosten pertza batean oliba olioarekin.**
- **Kaiena piperra erdibitu eta barruko haziak kendu. Bota pertzara eta irabiatu ondo erregosi bitartean.**
- **3minuturen buruan kaiena piperra kendu.**
- **Zatitu kuia eta bota pertzara. Erregosi une batez eta bota 200ml ur edo salda. Bota gatza.**
- **Utzi egosten 30minutu. Ondoren irabiagalutik pasa eta nahi izanez gero, esnegain hari batez atundu.**

ON EGIN!!

LEHIAKETA

0. Arrosa eta urdin argia nahastuta. **URDINA**



1. Gorria, berdea eta urdina nahastuta.
2. Gorria eta berdea nahastuta.
3. Urdin argia eta horia nahastuta.
4. Horia eta arrosa nahastuta.
5. Gorria eta horia nahastuta.
6. Urdin argia, horia eta arrosa nahastuta.

Gurutzegrama betetzeko gai izan al zara?

Ba zorteko zara, udaletxeko buzoian sartu zure erantzunak eta Toki Alai jatetxean 2 laguntzako asteburuko menú baten zozketan sartuko zara.

Zorte on.